

**Lanean sexu-jazarpenari eta sexuan
oinarritutako jazarpenari aurre egiteko
EITBko protokoloa**



ÍNDICE

I. zatia. Printzipio arautzaileak eta testuingurua

- Printzipioen adierazpena
- Aplikazio-eremua
- Dibulgazio-politika
- Sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza
- Ebaluazioa eta jarraipena
- Araudia eta definizioak

II. Zatia. Salaketak aurkeztea eta prozesua

- Kexak eta/edo salaketak aurkeztea
- Norekin jarri harremanetan/Aholkularitza konfidentziala**
- Prozedura informala
- Prozedura formala
 - Salaketa, aurretiko balorazioa eta kautelazko neurriak
 - Kautelazko neurriak
 - Prozedura
 - Prozesuaren amaiera. Diziplina-neurriak aplikatzea
 - Faltak eta zehapenak tipifikatzea

1. Eranskina. Salaketa-orria

1.1. | Printzipioen adierazpena

Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena, lan-munduan ager daitezkeen indarkeria-adierazpen gisa, generoan oinarritutako diskriminazio suntsizaileenetarikoz batzuk dira, eta, aldi berean, oinarritzko beste eskubide batzuk urratzen dituzte: duintasuna, berdintasuna, osotasun fisiko eta morala, askatasun sexuala eta lanerako eta lan- segurtasunerako zein osasunerako eskubideak. Gainera, botere-harremanaren adierazpenak dira, sexuaren arabera pertsonen egotzi izan zaizkien roletan zerikusituzena dutenak.

Horregatik guztiagatik, prebenitu, saihestu eta gertatzen direnean, gelditu beharreko portaerak dira, biktimen osasunean nahi ez diren ondorioak izan ez ditzaten.

Kontuan hartuta, batetik, berdintasuna, bereizkeriarik eza, osotasun fisiko zein morala, intimitatea, askatasun sexuala zein lanerako eskubidea eta duintasunaren babesa Espainiako Konstituzioan jasota daudela, Europar Batasunerako araudian, Langileen Estatutuan zein autonomia-erkidegoetako araudietan; eta bestetik, osasunari eragin diezaioketen kalteak kontuan harturik, **enpresaren izenean eta alderdi sozialaren izenean izenpetzen dugunok adierazten dugu ez dugula horrelako indarkeriarik onartuko gure aplikazio-eremuko den EITBn, eta, beraz, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena gogorki zehatuko direla.**

Halaber, protokolo honen bidez EITBk konpromisoa hartzen du sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren inguruko erreklamazioei zein salaketei **erantzuna emateko prozedura bat arautzeko**, eta berme guztiekin aplikatzeko; bai eta enpresako langile guztiak aipatutako eskubideak errespetatzeko beharraz jabetzeko behar den **prestakuntza zein informazioa** emateko ere. Horretarako, komunitateko, konstituzioko, autonomiako zein laneko araudiak hartuko dira kontuan, bai eta langileek indarkeriarik gabeko lan-giroaz gozatzeko duten eskubideei buruzko deklarazioak ere.

Edonola ere, laneko arriskuen prebentziorako esparruan, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arriskuak aztertu eta neurriak prestatu behar dira, jazarpen-egoera hori gerta ez dadin.

Protokolo hau aplikatzeak berekin dakar prozedura informatzen duten [printzipio hauek eta ondoren adierazten diren bermeak betetzea](#):

- **Bizkortasun-printzipioa:** izapideak [presaz egin behar dira](#), eta gehienez ere epe bat ezarri behar da izapidetzen diren erreklamazioak edo salaketak ebazteko.
- **Konfidentzialtasunaren eta datuen babesaren printzipioa:** prozeduran egiten diren izapide guztiak konfidentzialak izango dira, eta protokoloaren faseen garapenean zuzenean esku hartzen duten pertsonak baino ezin dituzte ezagutu, betetzen duten eginkizunaren arabera. Horrek esan nahi du, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa aplikatuz, espedienteetan datu pertsonalak ez sartzeari, esku hartzen duten pertsonen berriaz adieraztea gaiari buruzko sekretua gordetzeko betebeharra, dokumentazioa zaintzea, espedienteak identifikatzeko kode alfanumerikoak erabiltzea, eta abar, datu pertsonalak babesteko araudia aplikatuz. [Osasunari buruzko datuak](#) modu espezifikoan tratatu behar dira, eragindako pertsonak berriazko baimena eman ondoren espedienteetan sartzeko moduan, eta ondorioztatzen den edozein txostenek osasun-datuen konfidentzialtasunerako eskubidea errespetatu behar du.
- **Pertsonen intimitatea eta duintasuna babesteko printzipioa:** prozedurak jazarritako pertsonaren intimitatea babestu behar du, baita prozeduran inplikaturako pertsona guztiena ere. Eragindako [pertsonen intimitatea eta duintasuna babesteko](#) behar den diskrezioz jokatu behar da. Jarduketek inplikaturako pertsona guztiak (lekukoak, salatuak, etab.) errespetatu behar dituzte.
- **Segurtasun juridikoaren, inpartzialtasunaren eta inplikaturako pertsona guztien defentsa-eskubidearen printzipioak:** prozedurak bermatu behar du entzunaldi inpartziala eta bidezko tratamendua inplikaturako pertsona guztiei. Prozeduran parte hartzen duten pertsona guztiek fede onez jardun behar dute egia ikertzen eta salatutako egitateak argitzen. Prozeduran inplikaturako pertsona guztiek dute faseen emaitzari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea: enpresaren prozedura, eskubideak eta betebeharrak, zer fase garatzen ari den eta, parte-hartzearen ezaugarrien arabera (ukituak, lekukoak, salatuak). Prozedura honetako jardura guztietan, inplikaturako pertsonak lagun egin diezaiekete

- **Errepresaliak debekatzea (ukigabetasunaren bermea):** jazarpen-ikerketak salatzen, lekukotzen, laguntzen edo horietan parte hartzen duten pertsonen aurkako errepresaliarik ez gertatzea bermatuko da, baita mota horretako edozein jokabide, dela beren buruarekiko dela hirugarrenen aurrean, kritikatzeko edo aurka egiten duten pertsonen aurkako errepresaliarik ez gertatzea ere. Aipatutako subjektuen bati (salatzaileak, lekukoak edo laguntzaileak) tratamendu kaltegarria ematea dakarten neurriak deusezak izango dira. Prozeduran zehar biktimari edo jazarpenaren salatzaileei errepresaliak edo kalteak eragin bazaizkie, horiek, gutxienez, jazarpenaren aurretik zituzten baldintzetan itzuliko dira, hargatik eragotzi gabe egoera horren inguruan hasi nahi duten beste edozein prozedura eta horren ondorioak. Sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren kexa edo salaketa faltsua nahita aurkeztea oso zehapen larria da.
- **Lankidetzaren printzipioa:** sexu-jazarpeneko eta/edo sexuan oinarritutako jazarpeneko jokabideren baten berri duten pertsona guztiek horren berri eman behar diete organo eskudunei. Prozedura hau aplikatzean zitezela jasotzen duten pertsona guztiek inplikatzeko eta laguntzeko betebeharra dute.
- **Prestakuntza jaso duten pertsonen laguntzeko printzipioa:** prozedura bermatzeko, enpresak berdintasunean eta bere eginkizunetan trebatutako pertsonen parte-hartzea izan behar du. Era berean, garrantzitsua da salaketak izapidetzeko ardura duen organoaren osaera emakumeen eta gizonen presentzia orekatuan oinarritzea, gutxienez.
- **Berriz biktimizatu ez izanaren printzipioa:** ahal dela, saihestu egin behar da jazarpena jasan duen pertsonak behin eta berriz bere burua arriskuan jarri behar izatea eta behin eta berriz deskribatu behar izatea zer portaeraren biktima izan den.
- **Biktimari eta lan-inguruneari erreparazioa emateko printzipioa:** Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena eragiten duen edozein jokabideren eraginean dauden pertsonak ordaina jasotzeko eskubidea dute, lege ezarritako mekanismoen bidez, baina baita EITBk biktimaren proiektu profesionala berreskuratzeko neurriak abian jartzeko konpromisoa bere gain hartuz ere; biktimaren esku jarriko dira osasunaren babes integralerako eskubidea bermatzeko egokitzat jotzen diren neurri guztiak. Erabat berrezarri arte, hala nola laguntza profesional psikologikoa eta/edo medikoa; edo Aholkularitza konfidentzialarekin harremanetan jartzea, lagundu, aholkatu eta laguntzeko aurreko normaltasun-egoerara itzultzean.

1.2. | Ezarpen-eremua

Kontuan hartuta EITB Taldean gure lantokietan zerbitzuak ematen dituzten pertsona guztien laneko segurtasuna eta osasuna bermatzeko betebeharra dugula, osasunerako arriskurik gabeko lan-giroak daudela ziurtatu behar dugu bitarteko guztiak erabiliz. [Ondorioz, protokolo hau EITB Taldean lan egiten duen pertsona orori aplikatuko zaio osasuna prebenitzeko tresna den aldetik.](#)

Horretarako, protokolo honen bidez jakinarazten dugu [EITBk zero tolerantzia duela laneko indarkeriarekiko eta, bereziki, sexu-jazarpenarekiko eta sexuan oinarritutako jazarpenarekiko,](#) eta [jarduera-protokolo hori dagoela.](#)

Enpresa hornitzaile eta laguntzaileekiko harremana

Aurrekoa esanda, EITB Taldearentzat lan egiten duten [hornitzaileei](#) honako hauek eskatuko dizkiegu: lehenik eta behin, beren langileei gure politikari eta jarduera-protokolo honi buruzko informazioa emateko konpromisoa, protokolo horren aplikazio-eremuan baitaude; eta, bigarrenik, enpresa horietan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jarduteko protokolo propioa dagoen ala ez jakiteko informazioa, protokolo hori aplikatu ahal izateko Jazarpenaren subjektu aktiboa enpresa horietakoren batekoa da, eta, hala badagokio,

Era berean, EITBn gure gain hartzen dugu protokolo honen berri herritarrei, bezeroei eta enpresa hornitzaileei emateko betebeharra, zorrotz bete behar dela adierazita.

EITBk, kasu jakin batean, protokolo hau osorik aplikatzeko gaitasunik ez badu, ustezko jazarpenaren subjektu aktiboa gure boteretik kanpo geratzen delako, [EITBk enpresa eskudunarengana joko du arazoa konpon dezan eta, hala badagokio, arduraduna zeha dezan, eta ohartaraziko du,](#) hala egin ezean, bi enpresak lotzen dituen merkataritza-harremana iraungi ahal izango dela.

1.3. | **Dibulgazio-politika**

Protologo hau kaltetutako pertsona guztien eskura dago, honako hauen bidez:

- Tortolika (intranet)
- EITB.eus/Korporatiboa (Gardentasun Ataria, Hornitzaileen Ataria eta Ekoizleen Ataria, egokitzen jotzen diren atalez gain).
- HARRERA-ESKULIBURUAK (bekadunak eta langileak).
- Berdintasun Batzordea
- Jardueren koordinazioaren esparruan (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24) arabera, edozein zerbitzu-prestazio kontratatzen edo azpikontratatzan duten enpresa guztiei eta langile autonomoei emango zaie protokoloa.
- Ahalik eta baliabide gehien erabiliko dira bai bezeroek bai enpresa hornitzaileek enpresak arlo horretan duen politikaren berri izan dezaten.

| **Sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza**

EITBk prestakuntza egokia emango du berdintasunaren eta laneko indarkeriaren prebentzioaren arloan, maila guztietan (langileak, zuzendariak, erdi-mailako agintariak, langileen ordezkariak unitarioak, sindikala eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko berriak).

Langileen ordezkariak aktiboki parte hartuko dute antolatzen diren prestakuntza-ikastaroetan, bai eta ikastaro horiek langileen artean sustatzen ere, kolektibo horren sentsibilizazio handiagoa lortzeko.

1.4. | **Ebaluaketa eta jarraipena**

Aholkularitza konfidentzialak kontrolatuko ditu aurkeztutako salaketak eta espedienteen ebazpena, bi urtean behin protokolo honen aplikazioari buruzko jarraipen-txosten bat egiteko. Txosten hori zuzendaritzari, langileen ordezkariak bateratuko eta sindikaleko organoei, lan-arriskuen prebentzioaren arloko ordezkari-organoei eta berdintasun-batzordeari aurkeztuko zaie.

1.5. | Aplikatu beharreko araudia eta definizioak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak dio:

- sexu-jazarpena zein sexuan oinarritutako jazarpena bereizkeriazko ekintzak edo portaerak direla (7.3. artikulua);
- enpresek halabeharrez "lan-baldintza egokiak sustatu behar dituzte sexu-jazarpena eta sexu-arrazoiengatiko jazarpena saihesteko, eta prozedura espezifikoak ahalbidetuko dituzte horrelako egoerak prebenitzeko, eta egoera horiek pairatzen dituztenen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko";
- "helburu horretarako, zenbait neurri ezarri ahal izango dira langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, hala nola jarraibide egokien kodeak landu eta hedatzea, eta informazio-kanpainak edo prestakuntza-ekintzak egitea" (48.1 artikulua);
- eta lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzen lagundu behar dutela laneko ordezkariak:
 - langileak gai horren inguruan sentsibilizatuz
 - eta enpresako zuzendaritzari ezagutzen dituen jarrera edo portaeren eta jazarpena eragin dezaketenen berri emanez (48.2 artikulua).

Gainera, [sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena laneko arriskuak dira](#), izaera psikosozialekoak, eta pairatzen dituztenen segurtasunari eta osasunari eragin diezaiekete. Ildo horretan, EITBk langileen laneko segurtasuna eta osasuna babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar ditu. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena egiten duten langileei dagokienez, komeni da [gogoraraztea bi jazarpen-mota horiek kontratua ez betetzea direla, eta, ondorioz, diziplinazko kaleratzea ere eragin dezaketela](#). Hala ezartzen du 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. [EITBko hitzarmen kolektiboen diziplina-araubidea arautzen duen kapituluak falta astun edo oso astun gisa definitzen ditu](#).

1.6. | SEXU-JAZARPENAREN definizioa :

Sexu-jazarpena da “**pertsona baten duintasuna iraintzea asmo edo ondorio duen izaera sexualeko portaera berbal nahiz fisiko oro, bereziki testuingurua beldurgarria, iraingarria edo umiliagarria bada**” (LOI 7. artikulua).

Sexu-jazarpenaren berehalako helburua sexu-gogobetetasunen bat lortzea da, baina azken helburua pertsona batek beste bat mendean hartzeko boterea adieraztea da; maiz gizonezkoa da emakumea mendean hartzen duena, modu horretan betikotuz gure gizartean oraindik ere irauten duten zenbait botere-egitura.

Sexu-jazarpena dakarten jokabideak LARRITZAT edo OSO LARRITZAT jotzen dira, EITBren hitzarmenetan jasotakoaren arabera.

Hauek dira sexu-jazarpenaren zenbait ADIBIDE:

- Enplegua lortzeko, enpleguaren baldintzetako bat edo enplegua izaten jarraitzeko baldintza izatea biktimak sexu-mesederen bat egitea onartzea, nahiz eta baldintzapen horren mehatxu esplizitua edo inplizitua gauzatu ez (sexu-xantaia).
- Nahi ez den kontaktu fisikoa (ukituak, igurtziak, besarkadak, laztanak, atximur egitea...).
- Sexu-izaera iraingarria duten telefono-deiak, gutunak, mezuak edo argazkiak edota bestelakoak bidaltzea, sexu-izaeraren ingurukoak.
- Sexu-harremanak izateko presioa egitea eta hertsatzea.
- Sexu-iradokizunei edo eskaerei uko egin eta gero, errepresaliek in mehatxatzea
- Zigor Kodean ezarritako edozein sexu-eraso egitea.
- Errepresaliak hartzea jazarpenak salatzen dituzten lagunen kontra edo jazarpenen ikerketetan parte hartu, lagundu edo lekukotza egiten duten lagunen kontra, bai eta horrelako jokabideen aurka egiten dutenen aurka ere, euren buruez ari direla edo inori buruz ari direla.
- Keinu, soinu edo mugimendu lizunak behin eta berriz egitea.
- Bizitza sexualari buruzko galderak egitea.
- Zita bat behin eta berriro eskatzea dagoeneko ezezkoa eman denean.
- Behin eta berriz gehiegi hurbiltzea.
- Pertsona bati mugitzea eragozteko kontaktu fisikoa lortzeko.
- Zokoratzea, edo pertsona batekin bakarka gelditzea eragitea inolako beharrik gabe.
- Iradokizun sexualak egitea.

- Pertsona baten itxura fisikoari edo irudiari buruzko zein haren sexu-izaerari edo joerari buruzko komentarioak edo balorazioak egitea.
- Presiorik gabe harreman sexualak eskatzea agerian.
- Pertsona baten bizitza sexualari buruzko izaera sexualeko zurrumurruek zabaltzea.
- Pertsonak modu klandestinoan edo ezkutuan ikuskatzea leku pribatuan, hala nola komunetan edo aldageletan.
- Irudiak lanean eta/edo laneko ekipamenduetan erabiltzea (sexuaren ikuspegitik umiliagarriak, iradokitzaileak edo pornografikoak diren edukiak bistaratzea).
- Izaera sexualeko txisteak edo lausenguak behin eta berriro egitea.
- Norberaren trebetasun edo gaitasun sexualei buruz behin eta berriz hitz egitea.
- Beste pertsona baten gorputzari behin eta berriz lizunki begiratzea.

Sexuan oinarritutako jazarpenaren definizioa

“Honako hau har daiteke sexu-arrazoiengatiko jazarpentzat: pertsona baten sexuaren arabera egindako portaera oro, horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, makurrarazita, edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada” (LOI, 7.2 artikulua).

Sexuan oinarritutako jazarpena nagusiek zein lankideek edo mendekoek eragin dezakete, eta genero-estereotipoak izan ohi dira eragile nagusiak; maiz sexu bateko pertsonak mespretxatzea du helburu, haren gaitasunak, konpetentzia teknikoak eta trebetasunak gutxietsiz. Normalean sexu batek bestea mendean hartzeko botere-egoera mantentzeko asmoz egiten da, eta sexu-etako bateko pertsonak lan-mundutik egozteak dute helburu.

Sexu-jazarpena dakarten jokabideak larritzat edo oso larritzat jotzen dira, EITBren hitzarmenetan jasotakoaren arabera.

Hauek dira Sexuan oinarritutako jazarpenaren zenbait ADIBIDE:

- Etengabeko gutxiespen publiko zein pribatuak pertsona bati buruz edo haren lanari, gaitasunari, konpetentzia teknikoei, trebetasunei... buruz sexua dela-eta.
- Adierazpen sexistak eta iraingarriak erabiltzea gaitasunak, konpetentziak edota trebetasunak gutxiesteko... (adibidez: “emakumezkoa izan behar” “harrikoa egiteko bakarrik balio duzu”, “emakume, adi zure zereginei”).
- Egindako ekarpenak, iruzkinak edo ekintzak pertsonaren sexuaren arabera alboratzea (baztertzea, aintzat ez hartzea).
- Nagusien aginduei edo jarraibideei kasurik ez egitea, nagusiak emakumezkoak badira.
- Pertsona bati haren gaitasunari dagokion lanpostua edo betebeharra baino beheragoko bat ematea, sexua dela-eta.
- Lana zapuztea edo behar bezala egiteko bideak oztopatzea (informazioa, dokumentazioa, ekipamendua...).
- Pertsonak adingabeak balira bezala, mendekotasunen bat balute bezala, maila intelektual baxua... balute bezala tratatzea (hitz egiteko moduan, tratuan...) sexua dela-eta.
- Agindu iraingarriak ematea pertsonaren sexua dela-eta.
- - Muturreko eta etengabeko zainketa dakarten jarrerak.
- Tradizionalki beste sexuko pertsonak egin izan dituzten lanak hartzeagatik pertsonak barregarri uztea.
- Pertsona bati dagozkion baimenak ukatzea, modu arbitrarioan eta sexua dela-eta.
- Umore sexista erabiltzea.
- Diskriminazioak egitea, sexua dela-eta
- Indar fisikoa erabiltzea sexu bat beste bati gailentzen zaiola erakusteko.

2. | KEXAK eta/edo SALAKETAK aurkeztu

Protokolo honen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsona guztiek pertsonen duintasuna errespetatu beharko dute, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena eragin dezaketen jokabideak saihestuz.

Kexa eta/edo salaketa bat aurkeztu nahi duen pertsona orok honako kontaktu hauengana jo dezake:

- **Marian Parra Salado.** EITBko Berdintasun burua.
94 656 **3129** parra_marian@eitb.eus
- **Alberto Santos Barrena.** EITBko Prebentzio eta Osasun koordinatzailea.
94 656 **3167** santos_alberto@ eitb.eus
- **Izarne Arrigain Azkona.** EITBko Giza Baliabideen zuzendaria
94 656 **3150** arrigain_izarne@eitb.eus

Horiek dira Aholkularitza konfidentziala osatzen duten pertsonak, dagozkien prozedurak abian jartzeaz arduratzen direnak. EITBko Berdintasun Batzordeak adostu du.

Prozedurak

Jarraian deskribatutako prozedurak aplikatzekoak izango dira, hargatik eragotzi gabe aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren arabera izan daitekeen zehapen-prozedura.

Era berean, EITBko Giza Baliabideen Zuzendaritzak konpromisoa hartzen du Aholkularitza konfidentzialari sexu-jazarpentzat edo sexuan oinarritutako jazarpentzat har daitezkeen gertakariak edo zirkunstantziak jakinarazteko.

Prozedura informala

- Jarduerak edo jarrerak izaera sexista duten kasuetan, baina sexu-jazarpenat edo sexuan oinarritutako jazarpenat har ezin badaitezke, kexa ahoz zein idatziz aurkeztu ahal izango da Aholkularitza Konfidentzian.
- Aholkularitza Konfidentzialak erabakiko balu kexako jarrera sexu-jazarpenat edo sexuan oinarritutako jazarpenat jo daitekeela, biktimari jakinaraziko dio idatziz aurkeztu behar dela salaketa prozedura martxan jarri ahal izateko.
- Jarrera hori sexu-jazarpenat hartu ez arren, behin eta berriro gertatuz gero sexu-jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen bihurtu daitezkeen jarrera sexista dela irizten bada, Aholkularitza Konfidentzialak prozedura konfidentzial azkar bat jarriko du abian kexa egiaztatzeko; horretarako, enpresako edozein lekutan eta edozein unetan sartzeko aukera izango du eta beharrezko irizten dituen adierazpenak jaso ditzake.
- Aurkeztutako kexak egia-zantzuak dituela egiaztatuta eta gero, kexa jarri zaion pertsonarekin jarriko da harremanetan Aholkularitza modu konfidentzian, bakarka edo ustezko biktimak lagunduta (biktimak nahiago duena), eta jakinaraziko zaio, batetik, haren jarrerari buruzko kexa bat jaso dela eta egiazkoa bada eta aurrerantzean ere jarrera hori errepikatu eta mantentzen bada, sexu-jazarpenat edo sexuan oinarritutako jazarpenat hartuko dela, eta, bestetik, egoera horrek ekar diezazkiokeen ondorio edo diziplina-zehapenen berri emango zaio.
- Portaera sexista egotzi zaion pertsonak nahi dituen azalpenak emateko aukera izango du.
- Konponbiderako prozedura informal honetan, Aholkularitza Konfidentzialak kexa jakinarazi eta portaera horrek iraunez gero, horren ondoriozko balizko diziplina-zehapenei buruzko informazioa emango du soilik.
- Prozedura hori zazpi laneguneko epean egingo da gehienez ere. Printzipioz, Aholkularitzak kexa aurkezten duen pertsonari sinesgarritasuna emango dio eta prozeduraren konfidentziasuna eta pertsonen duintasuna zaindu behar ditu. Helburu horrekin, prozeduraren hasieran zenbakiak esleituko zaizkio interesdunei, jazarpenat jo ezin badaitezke ere, jazarpen bihurtu daitezkeen tipologia hauek dokumentatzeko asmoz.

- Kexa aurkeztu eta zazpi laneguneko epean, amaitutzat joko da prozedura. Salbuespenez, premia larrietan baino ez, hiru egunez luza daiteke epea.
- Aholkularitza Konfidentzialak berehala jakinaraziko die prozedura informala emaitza enpresako zuzendaritzari eta langileen ordezkariari, bai ordezkari bategaritari, bai sindikatuen ordezkariari, eta lan-arriskuak prebenitzearen alorreko ordezkariari espezifikoari. Berdintasun Batzordeari edo antzeko organoari ere berehala jakinaraziko dio, halakorik egonez gero.

Prozedura formala

Prozesuaren hasiera. Salaketa, arretiazko balioespena eta kautela-neurriak hartzea.

- Salatutako jarduerak jazarpenatzat jotzen badira edo salatzailea ebazpen-prozedura informalaz lortutako soluzioarekin gustura ez badago –dela eskainitako soluzioari desegoki deritzolako, dela salatutako jokabideak berriro egin direlako; Lan Ikuskaritzan, auzibide zibilean eta lan-auzibidean salatzeko edo auzibide penalean kereila jartzeko eskubideaz gain, salaketa formala planteatu dezake salatuak izan ditzakeen diziplina-erantzukizunak argitzeko.
- Salaketa idatziz egingo da, eta Aholkularitza Konfidentzialari bidaliko zaio. Aholkularitza Konfidentzialak salaketaren iturria, izaera eta seriotasuna balioetsiko ditu, eta nahikoa zantzu aurkitzen badu, ofizioz jardungo du salatutako egoera ikertzeko. Aurreko kasuan bezala, Aholkularitzak kexa aurkezten duen pertsonari sinesgarritasuna emango dio eta prozeduraren konfidentziasuna eta pertsonen duintasuna zaindu behar ditu. Horretarako, prozeduraren hasieran zenbakiko kodeak esleituko zaizkie ukitutako alderdiei.
- Biktimaz gain, jazarpenaren berri duen edozeinek sala dezake egoera hori.
- Aholkulari Konfidentzialak salaketa formal guztien konfidentziasuna eta seriotasun gorena bermatu beharko du. Printzipio hori bete ezean, zehapen-ohartarazpena egingo zaio.

2.Kautela-neurriak

- Salaketa jaso eta gero, Aholkulari Konfidentzialak egoeraren berri emango dio modu konfidentzian enpresako zuzendaritzari, hala dagokionean, kautela-neurriak har ditzan. Kautela-neurri batzuk dira, betiere posible den kasuetan, jazarpenaren subjektu pasiboak eta aktiboak berehala aldentzea edo txanda-aldaketa bat egitea, biktimaren osasunarentzat eta osotasunarentzat kaltegarria den egoera luzatzea saihesteko. Neurri horiek biktimari inoiz ere ez diote ekarriko lan-baldintzen kalte edo galerarik, ez eta haien funtsa aldatzea.
- Halaber, beharrezkoa den informazioa emango dio Berdintasun Batzordeari halakorik egonez gero, une horretara arte egindako jardueri buruz eta sinesgarritasunaren gainean dituen usteei buruz.

3.Prozedura

- Aholkularitza Konfidentzialak egokitzen jotzen dituen ikerketa-prozedurak erabiliko ditu salaketaren egitasuna egiaztatzeko, une oro errespetatuz tartean dauden pertsonen funtsezko eskubideak, alderdi bien intimitate eta duintasunerako eskubidea, batez ere.
- Salaketa aurkeztu dela ahalik eta arinen jakinarazi beharko dio salatuari.
- Horrez gain, hitz egiteko aukera emango zaio biktimaren aurrean ala ez (biktimak hautatzen duena) edo, hala dagokionean, salatariaren aurrean (kasu horretan salatariaren nahiaren arabera). Lekuko-froga egiteko, bai bata bai besteak ordezkaritza-organoetako beste kide bat edo batzuk edo, egokitzen jotzen bada, beste langile batzuk egotea eska dezakete.
- Ahal izanez gero, egitatei buruz biktimak duen azalpenaz soilik jasoko da informazioa, salaketa berak egiten duenean (non eta ez den beharrezko gertatzen ondoren beste elkarrizketa batzuk egitea kasua ebazteko), eta konfidentziasuna eta arintasuna bermatuko da izapideetan.

4. Prozeduraren bukaera eta diziiplina-neurriak aplikatzeko proposamena

- Salaketa aurkezten denetik hamar laneguneko epean gehienez ere, [Aholkularitza Konfidentzialak \(edo organo eskudunak\)](#) ikertutako ustezko jazarpenari buruzko txosten bat egin eta onartuko du, non ateratako ondorioak eta ikusitako inguruabar astungarriak adierazi, eta dagozkion diziiplina-neurriak proposatuko dituen, hala behar denean. Txosten hori berehala bidaliko da EITBko goi-zuzendaritzara eta Berdintasun Batzordera, egonez gero. Salbuespenez, premia larrietan baino ez, hiru egunez luza daiteke epea.
- Bermatu egin beharko da jazarpenak salatzen dituzten lagunen kontrako edo jazarpenen ikerketetan parte hartu, lagundu edo lekukotza egiten duten lagunen kontrako errepresaliarik ez egotea, ez eta horrelako jokabideen aurka egiten dutenen edo hori kritikatzten dutenen aurka ere, euren buruez ari direla edo inori buruz ari direla. Adierazitako subjektuentzat (salatariak, lekukoak edo laguntzaileak) tratamendu kaltegarria dakarten neurriak hartzea zehatu egingo da ondoren arautzen den diziiplina-araubidearen arabera.
- Aurrekoa gorabehera, zehatu egingo dira nahita egindako iruzurrezko eta engainuzko salaketa, alegazio edo adierazpenak, salatuari justifikatu gabeko kaltea eragiteko egindakoak; horretaz gain, zuzenbidearen arabera bidezkotzat jotzen diren beste ekintza batzuk ere gauzatu ahal izango dira.
- Prozeduran zehar biktimarentzat edo jazarpenaren salaketa jarri dutenentzat errepresaliak edo kalteren bat gertatuz gero, horiek guztiak oneratu dira, gutxienez, aurretik zeuden baldintzetan, eta egoera hori dela-eta abian jar daitekeen beste edozein prozedurari eta haietatik eratorritako ondorioei kalterik egin gabe.
- Disuasio-xedez, egindako ikerketaren emaitza eta zehapen-espeditentza behar beste jakinaraziko dira zehatutako jarduera gauzatu zen eremuan, betiere ukitutako pertsonen intimitaterako eskubidea errespetatuz.
- Aholkularitza konfidentziala gauza ez bada salaketa funtsezkotzat jotzeko behar besteko probak biltzeko, salatzailea ezingo dute, salatzailea biktima bera denean, behartu salatuarekin gogoz kontra lan egitera. Zuzendaritza behartuta dago lanpostua aldatzera, ahal izanez gero.

Faltak tipifikatzea eta zehapenak

Sexu-jazarpentzat eta sexuan oinarritutako jazarpentzat jo daitezkeen ekintzak eta portaerak falta LARRI edo OSO LARRIAK dira, EITBko sozietatetako aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboen arabera, eta horietan jasotako zehapen-araubidea aplikatuko da.

LARRIGARRIAK dira hauek:

- Nagusitasun hierarkikoaren egoeraz abusatzea edo biktimaren lan-baldintzen edo lan-harremanaren beraren gaineko erabakimena izatea jazarpena egiten duen pertsona.
- Portaera laidogarriak behin eta berriz izatea biktimak konponbiderako prozedurak martxan jarri eta gero.
- Maltzurkeria, hau da, bitartekoak, moduak edo formak erabiltzea zuzenean subjektu aktiboaren ukigabetasuna bermatzeko.
- Jazarlea berrerorlea bada sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena egiten.
- Bi biktima edo gehiago izatea.
- Biktimak desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoren bat izatea.
- Biktimak lehenagotik akreditatutako arazo medikoren bat duenean.
- Jazarlea biktimarekiko, lekukoekiko edota Aholkularitza Konfidentzialarekiko beldurtzeko jokabideak edo errepresaliak gauzatu dituela egiaztatzea.
- Langileak hautatzeko edo sustatzeko prozesuan zehar gertatzen direnean.
- Biktima, lekukoak edo haien laneko edo familiakoak presionatzea edo behartzea, ikerketa behar bezala egin ez dadin
- Behin-behineko kontratazioan, bitarteko kontratuarekin, probaldian, bekadun edo praktketan egotea.

Sinadurak:

Zuzendaritza aldetik

Alderdi sozialen aldetik

Marian Parra Salado

EITBko berdintasun eta kalitate burua

Julen Sagastizabal Isasi

EITBko komiteko kidea

Izarne Arrigain Azkona

EITBko Giza Baliabideen zuzendaria

Iratxe Canovas Corta

ETBko komiteko kidea-ELA

Alex Ortuzar Irazola

EITBko Giza Baliabideen zuzendariordea

Larraitz Eguren Arruti

ETBko komiteko kidea-LAB

Ana Arbulu Lopez de Lacalle

EITB Irratietako komiteko kidea-ELA

Eider Jauregi Oiartzabal

EITBNET-eko komiteko kidea-LAB

Bilbon, 2021eko uztailaren 1ean

I ERANSKINA SALAKETA DENUNCIA

Eskatzailea Solicitante

- ERAGINDAKO PERTSONA** PERSONA AFECTADA
 LANGILEEN ORDEZKARIA REPRESENTANTE DE LA PLANTILLA
 BESTELAKOAK OTROS

Jazarpen-Tipoa Tipo de Acoso

- SEXU-JAZARPENA** ACOSO SEXUAL
 SEXUAN OINARRITAKO JAZARPENA ACOSO POR RAZÓN DE SEXO

Eragindako pertsonaren datuak Datos de la persona afectada

IZEN-ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS:

IFZ NIF: **SEXUA SEXO:** **EMAKUMEA** MUJER **GIZONA** HOMBRE

LANPOSTUA PUESTO DE TRABAJO:

LANTOKIA/SAILA CENTRO DE TRABAJO/DEPARTAMENTO:

LAN-HARREMANA/KONTRATU-MOTA VINCULACIÓN LABORAL/TIPO DE CONTRATO:

TELEFONOA TELÉFONO DE CONTACTO:

Gertakarien deskribapena Descripción de los hechos:

Lekukorik egonez gero, adierazi haien izen-abizenak En el caso de que haya testigos, indique sus nombres y apellidos:

Eskabidea Solicitud:

- Babes-neurri eraginkorrak ezartzea eskatzen dut sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko** Solicito el inicio del protocolo de actuación frente al acoso sexual y acoso por razón de sexo

Herria eta data Localidad y fecha

Sinadura Firma